



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

ZALDIBARKO HONDAKINDEGIAREN JABEA DAN ENPRESARI ZEHAPEN ESPEDIENTEA EDEGIKO JAKOLA IRAGARRI DAU BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK

- **Imanol Pradales Azpiegitura eta Lurraldearen Garapenerako Foru Diputatuak Bizkaiko Batzar Nagusietan gaur iragarri dauenez, foru erakundea “atzo bertan” aurkeztu zan akusazino partikular moduan Durangoko epaitegi batean edegita dagon kasuan.**

(Bilbon, 2020ko zezeilaren 27an).– Azpiegitura eta Lurraldearen Garapenerako Sailaren eskumenen barruan, Imanol Pradales ordezkari nagusiak, Elkarrekin Bizkaia eta Talde Berezia (PP) taldeek eskatu daben agerraldian Bizkaiko Batzar Nagusietan gaur iragarri dauenez, Aldundiak zehapen espedientea edegi deutso Verter Recycling 2000 enpresari, AP-8 autopistako eta N-634 foru errepideko “elementuak kaltetuteagaitik”, kalte “larriak” eragin diralako errepide horreen funtzionaltasunean “eta, hori dala eta, bide segurtasuna arriskuan jarri dalako”. Espediente horrek ez dau baztertzen Foru Erakundea, “atzo bertan”, Pradalesek baieztu dauenez, Durangoko Epaitegian Zaldibarko hondakindegia jaustearen ondorioz edegita dagon epai prozesuan akusazino partikular moduan aurkeztu izana.

Bere berbaldian, diputatuak, Zaldibarko hondakindegia jausi zanetik Aldundiko zerbitzuak egunero egin daben beharraren barri emon dau, bere sailari jagokozan jarduketei jagokenez eta baita larrialdiko foru zerbitzuei jagokenez be. Azken puntu horretan, arlo horretako zuzendariak, Pedro Izagak, lagundu deutso.

Beste ezer baino lehen, hondamendia dala eta errepideko azpiegiturei jagokenez “ezein ezpondak ez dauela kalterik jasan” argitu dau Pradalesek. Autopistan 2 kilometroko “bypass” bat dago, eta holan jarraituko dau A-8 autopistako galtzadaren segurtasuna, Donostiako noranzkoan, bermatuta egon arte. Horren ondoan neurri bi ari dira gauzatzen, lurraren mobimenduei eusteko, eta “datorren astean” amaituko dira, aurreratu dauenez. Beste alde batetik, 8 metro altu eta 50 luze izango dan euspeneko horma bat eregiko da, “harrobiko 45 tonako 42 bloke erabilia, 200.000 euroko kostuagaz”; eta, bukatzeko, lur-jausien kontrako pantaila dinamiko bat instalauko da, 75 metro karratukoa, mendian gora, 10.000 metro kubiko lur hondeau eta gero.

Pradalesek esan dauenez, soluzino konbinatu horrek “lur-jausia gertatu ezkerro metatzeko eta eusteko ahalmen handiagoa irabazteko” aukerea emongo dau; “lur-jausia 7 zentimetrotan finkatu da zezeilaren 6tik”, eta horreek mobimendu



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

“txikiak eta logikoak” dira, adituek adierazo dabenez. Horrek ez dau esan gura “hondakindegian hondakinen masa guztiz egonkortu arte lur-jausiren bat gertatzeko arriskurik ez dagonik”, euria egiten badau, batez be, adierazo dauenez.

Larrialdietako foru zerbitzuei jagokenez, Eusko Jaurlaritzako Larrialdien Arretarako Zuzendaritzaren jarraibideei jarraituz jarduten dabela esan dau Pradalesek, eta euren egitekoa desagertuta dagozan persona biak bilatzeko lanetan laguntzera, “horrek dauka lehentasun osoa”, eta hondakindegian piztu izan diran suteak itzaltzera mugatzen ari dala. Taldeen erantzun-eskeen aurrean, Pradalesek behin eta berriz esan dauenez “Aldundiaren esku dagozan enpresek eta beharginek zorroztasun osoz bete ditue higiene eta segurtasun neurri guztiak, arriskuen prebentzino zerbitzuek gainbegiratuta”.

Emondako azalpenen ostean, oposizino taldeek zuzenean jo dabe erakundeen kudeaketea eta erakundeen arteko koordinazio faltea kritiketera. Talde Bereziko (PP) Eduardo Andraderen berbetan, “ardura bakoa” izan da, baina berba onak izan ditu diputatuarentzat, bere sailari jagokenez kudeaketea “zuzena izan dalako, danen artean onena”. Halanda be, kritikau egin ditu persona biak aurkitzeko baliabide “gitxiak” egotea eta hondakindegian ikusi dan kontrol faltea, eta baita su-hiltzaileentzako jarduketa-protokolorik ez egotea be.

Modu berean, Eneritz de Madariaga Elkarrekin Bizkaia taldeko bozeroaleak, lehenengo esku-hartzeetan laneko osasun arloko “behar besteko” prebentziorik egon ez izana tamalgarria dala esan dau, Aldundiko beharginak “dioxinen, furanoen eta amiantoaren” aurrean egon ziralako. Erakundeen eta sailen arteko jarduketarako protokoloak hobetzea eskatu dau. Emilio Lobato bere taldekideak, hondakinak lekuz aldatzeko dagozan alternatiben ganean galdetu deutso diputuari.

EH Bilduk, bere aldetik, larrialdiaren kudeaketea kritikau ostean, eskua luzatu deutso Aldundiari, “gure eretz tragedi hau danon artean konpondu behar dogulako”, adierazo dau Onintze Oleagak, eta, horretarako, “datu ofizial objektiboak guri helduazotea” eskatu dau. Bere txandea amaitzeko, hondakindegian zer dagon eta hondakinak nora eroango diran dakien galdetu deutso diputuari.

Foru Gobernu eusten daben taldeek (Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak) eskertu egin dabe emondako informazioa. Francisco José Fernández sozialistak, desagertuta dagozan persona biak aurkitzeari lehentasuna emoteko eskatu dau, eta beharginen segurtasuna eta uraren eta aidearen kalidadea bermatu, arriskuak gitxitu eta, amaitzeko, erantzukizunak



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

garbitu behar dirala be esan dau. Jon Andoni Atutxa jeltzaleak, bere aldetik, “lehentasuna Alberto eta Joaquín aurkitzea dala” azpimarratu dau.

ARTXANDAKO BIZTANLEEN KEXEA

Beste alde batetik, Artxanda Plataforma Auzokideen Alkarteko kideek, 2015eko azarotik salatzen ari diran kexea ekarri dabe Eskaeretarako eta Herritarrakazko Hartu-Emonetarako Batzordera. Hilebete horretan erreklamazino formala aurkeztu eben Aldundian, ehiztari batzuek Artxanda auzoan daukien jarrera salatzeke. José María Larrañaga alkarteko presidenteak, Iñaki Larrañaga zuzendaritza taldeko kideak lagunduta, gai horren inguruan jarduteko Aldundiagaz izandako idazkien eta hartu-emonen barri emon ostean, azkenengo ehiza denporaldian “gertakariak” errepikau egin dirala, eta auzokideen eta ehiztarien artean “istiluak” be egon dirala esan dau.

Auzo alkartearen ordezkariak, Bizkaiko Batzar Nagusien agindua beteteko eskatu deutso Aldundiari, EH Bilduk aurkeztu eta Euzko Abertzaleak taldearen zuzenketa-eskea jaso eban arauz besteko proposamena, aho batez onartutakoa. Bertan, “Artxandako Gune Librean” ehizan ibilteko debekua betearazoteko eskatzen jakon Aldundiari. Auzokideek adierazo dabenez, gune hori Berriz auzoaren eta Abril mendiaren arteko 400 metroko zabalerakoa izango litzateke.

Batzordeko talde guztiek ulertu dabe Artxandako biztanleen “haserrea”, eta “ahalik eta arinen” konponbidea bilatu behar dala esan dabe. Oposizinoko taldeek esan dabe tamalgarria dala Aldundiak kasu horretan “ez dauela egin beharrekoa egin”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA ANUNCIA LA APERTURA DE UN EXPEDIENTE SANCIONADOR A LA EMPRESA PROPIETARIA DEL VERTEDERO DE ZALDIBAR

- **El Diputado Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, Imanol Pradales, ha confirmado hoy en las Juntas Generales de Bizkaia que la institución foral se personó “ayer mismo” como acusación particular en el caso abierto en un juzgado de Durango.**

(Bilbao, a 28 de febrero de 2020) . – En el ámbito de las competencias del departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, su máximo responsable, Imanol Pradales ha anunciado hoy, en una comparecencia solicitada por los grupos Elkarrekin Bizkaia y Mixto (PP) en las Juntas Generales de Bizkaia, que la Diputación ha abierto un expediente sancionador a la empresa Verter Recycling 2000 “por dañar elementos” de la autopista AP-8 y la carretera foral N-634, ya que se ha afectado “gravemente” a la funcionalidad de las mismas “y, consecuentemente, se ha puesto en riesgo la seguridad vial”. Este expediente no quita para que la Institución foral se haya personado, “ayer mismo”, según ha confirmado Pradales, como acusación particular en el proceso judicial abierto en el juzgado de Durango por el desplome del vertedero de Zaldibar.

En su intervención, el diputado ha ido relatando el día a día de los servicios forales que han intervenido desde que se produjo el deslizamiento del vertedero de Zaldibar, tanto desde las actuaciones que afectan a su departamento como las que tienen que ver con la de los servicios forales de emergencia, apoyado en este caso en el director de este ámbito Pedro Izaga.

Pradales ha aclarado primeramente que, en lo que tiene que ver con las infraestructuras viarias, “ningún talud se ha visto afectado” por la catástrofe. Existe un “bypass” de 2 kilómetros en la autopista que se mantendrá hasta que se garantice la seguridad de la calzada de la A-8 con sentido Donostia, junto a la que se están acometiendo dos medidas para contener movimientos de tierra que terminarán “la semana próxima”, ha avanzado. Por un lado, la construcción de un muro de contención de 8 metros de alto por 50 de largo, por medio de “42 bloques de cantera de 45 toneladas, con un coste de 200.000 euros”; y, por otro lado, la instalación de una pantalla dinámica anti-aludes de 75 metros cuadrados monte arriba, tras excavar 10.000 metros cúbicos de tierra.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Esta solución combinada permitirá, a juicio de Pradales, “ganar mayor capacidad de almacenamiento y contención en caso de deslizamiento”; un deslizamiento que se ha asentado en “7 centímetros desde el día 6 de febrero”, movimientos que los expertos han definido de “pequeños y lógicos”. Esto no quita para que “siga existiendo riesgo de deslizamientos mientras no se estabilice totalmente la masa de residuos en el vertedero”, especialmente si llueve, ha advertido.

En relación a los servicios forales de emergencia, Pradales ha asegurado que actúan en función de las indicaciones de la Dirección de Atención de Emergencias del Gobierno Vasco y que su función se está limitando a ayudar en los rescates de las dos personas desaparecidas, “algo prioritario”, y en extinguir los diversos incendios que se estuvieron produciendo en el vertedero. A preguntas de los grupos, Pradales ha insistido en que “tanto las empresas como los trabajadores forales han cumplido escrupulosamente las medidas de higiene y seguridad, supervisadas por los servicios de prevención de riesgos”.

Tras las explicaciones dadas, los grupos de la oposición han pasado directamente a criticar la gestión y la descoordinación interinstitucional. Eduardo Andrade, del grupo Mixto (PP), ha tachado la misma de “negligente”, aunque ha tenido buenas palabras para el diputado, resaltando que en lo que concierne a su departamento la gestión ha sido “correcta. La mejor de todas”. Sin embargo, ha criticado la “escasez” de medios para encontrar a dos personas y la falta de control en el vertedero, así como la inexistencia de un protocolo de actuación para los bomberos.

En la misma línea, la portavoz de Elkarrekin Bizkaia, Eneritz de Madariaga, ha lamentado que no hubiera la prevención “suficiente” en materia de salud laboral en las primeras intervenciones puesto que el personal foral estuvo expuesto a “dioxinas, furanos y amianto”. Ha pedido que se mejoren los protocolos de actuación interdepartamentales e interinstitucionales. Por su parte, su compañero de bancada Emilio Lobato ha preguntado al diputado por la alternativa existente para trasladar los residuos.

Por su parte, el grupo juntero EH Bildu, después de criticar la gestión de la emergencia, ha tendido la mano a la Diputación “porque consideramos que esta tragedia tiene que ser solucionada juntos”, ha dicho Onintze Oleaga, quien ha pedido que, para ello, “nos hagan llegar datos oficiales objetivos”. Ha terminado su intervención preguntado al diputado si sabe lo que hay en el vertedero y si conoce dónde llevarán los residuos.

Los grupos que sustentan al Gobierno foral (Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos) han agradecido la información aportada. El socialista Francisco José Fernández ha pedido que se priorice encontrar a las dos personas



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

desaparecidas, así como garantizar la seguridad de los trabajadores y la calidad del agua y del aire, minimizar los riesgos y depurar responsabilidades. Por su parte, el jeltzale Jon Andoni Atutxa ha insistido en que “la prioridad es encontrar a Alberto y Joaquín”.

QUEJA DE VECINOS DE ARTXANDA

Por otro lado, la Asociación Vecinal Plataforma Artxanda ha traído a la Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía una queja que llevan denunciando desde noviembre de 2015, mes en el que presentaron una reclamación formal en la Diputación para quejarse de la actitud de cazadores en el barrio de Artxanda. El presidente de la asociación, José María Larrañaga, acompañado del vocal Iñaki Larrañaga, después de relatar los escritos y contactos mantenidos con la Diputación para que ésta actuara, ha asegurado que durante la última temporada de caza se han reproducido los “incidentes”, llegándose a “enfrentar” vecinos y cazadores.

El representante vecinal ha pedido a la Diputación que cumpla el mandato de las Juntas Generales de Bizkaia, una proposición no de norma de EH Bildu, enmendada por Nacionalistas Vascos, que fue aprobada por unanimidad, y en la que se instaba a la Diputación a que hiciera cumplir la prohibición de cazar en la “Zona Libre de Artxanda”. Dicha zona, según los vecinos, ocuparía 400 metros de anchura entre el barrio de Berriz y el monte Avril siguiendo el eje de la carretera.

Todos los grupos junteros han entendido el “enfado” de los vecinos de Artxanda y se han conjurado en buscar una solución “a la mayor brevedad”. Los grupos de la oposición han lamentado la “dejación de funciones” de la Diputación en este caso.